

EKOIZPEN BEGETAL EKOLOGIKOAREN ZIURTAPENA

NNPEKekin LORTZEKO ESKULIBURUA

Dokumentu honen xedea da ekoizle begetal ekologikoaren ziurtapena lortzeko jarraitu beharreko prozesuaren eta oinarritzko betebeharren berri ematea. Informazioa osatzeko, ekoizpen ekologikoaren araudia duzu eskura gure webgunean: www.cpaen.org.

Soil-soilik kontrolpean diren eta indarrean den ziurtapena duten nekazaritza eta elikadura ekoizpenek erabiltzen ahalko dituzte NNPEK kontseiluaren adostasun markak, bai eta “ekologikoa”, “biologikoa”, “organikoa” termino babestuak edo haien laburdurak ere.

NNPEK kontseiluak honako Eskuliburu hauek ditu eskura ziurtatu daitekeen jarduera bakoitzari buruzko informazioa emateko (gorriz, Eskuliburu hau bera da):

JARDUERAK	INFORMAZIO ESKULIBURUAK
Ekoizpena (ekoizpenak biltegitururik edo ez, barne dira ekoizpen propioak eraldatu gabeko lanak).	
“Azipijarduera”: Begetala.	Ekoizpen Begetala (MAN001)
“Azipijarduera”: Animaliak (erlezaintza barne).	Abeltzaintza Ekoizpena: Ugaztunak (MAN002); Abeltzaintza Ekoizpena: Erlezaintza (MAN003); Abeltzaintza Ekoizpena: Hegaztiak (MAN008)
“Azipijarduera”: Akuikola.	Abeltzaintza Ekoizpen Akuikola (MAN004);
Elaborazioa edo Prestaketa (biltegitururik edo ez, eraldakuntza da barne, bai eta bestelako lanak ere, hala nola hiltzea, ontziratzea, etiketatzea).	Elaborazioa (MAN005)
Inportazioa (Europar Batasuneko herrialdeetatik kanpo, biltegitururik edo ez).	Inportazioa (MAN007)
Banaketa/Merkaturatzea (produktua biltegitururik edo ez, barne dira produktuari lotutako transakzio ekonomikorik gabeko “merkaturatze” jarduerak)	Banaketa/Merkaturatzea (MAN006)

ALDERDI OROKORRAK

Ekoizpen begetal ekologikoaren oinarria da biodibertsitate eta emankortasun maila altuak lortu eta mantentzea, eta, era berean, gaitzak eta izurriak kontrolatzea, etsai naturalen presentziaren bidez eta jardunbide kultural egokiak eginez. Horrenbestez, dibertsifikazio estrategiari heldu beharko diozu, biodibertsitatea handitzeko eta fauna laguntzailea babesteko aukera izan dezazun, bai eta zure ustategiko luraren emankortasuna mantendu eta/edo handitzeko aukera ere.

Ez da zilegi erabiltzea genetikoki eraldatutako organismoak (GEO), ezta GEOetatik edo haien bidez lortutako produktuak ere.

Ez da zilegi ekoizpen hidroponikoa. Nekazaritza-ekoizpenak lurri lotua egon behar du.

NNPEKek ez du aholkularitza tekniko egiten, ekoizpena kontrolatzeko eta ziurtatzeko ardura duen Kontrol Agintaritza baita.

Arauetan edo ziurtapen baldintzetan aldaketak direnean, NNPEKek jarriko ditu zure eskura www.cpaen.org webaren bidez eta, halaber, araudiaren bertsio finkatua eguneratuko du. Honako esteka honetan ikusten ahalko dituzu aldaketak eta bertsio eguneratuak: <https://www.cpaen.org/es/normativa/reglamentos>.

Urtero jakinarazi beharko diozu NNPEKi zure ekoizpen begetaleko programa. Jakinarazpena auditoretza egiten denean egiten ahalko duzu. Horrez gain, behar adina aldiz jakinarazten ahalko duzu zure ekoizpen begetala urtean zehar, urteko labore aldaketan arabera. Jakinarazpen gehigarri horiek administracion@cpaen.org e-maillean egiten ahalko dituzu, azaleraren eta lursailen arabera zehaztuak. Era berean, zure ustiategian gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiozu NNPEK erakundeari, eta zure ekoizpen-unitateen deskribapena eguneratu, behar den bakoitzean (lursail berriei alta ematea, lursailen baja ematea, ekoizpenak biltegiatzeko instalazioak, etab.).

Prebentzio eta arduraren neurriak hartu beharko dituzu arauak ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta baimendu gabeko produktu edo substantziekin izan litezkeen kutsadura arriskuak murrizteko.

Ematen dizkizun zerbitzuengatik urteko tasetan ezarritako zenbaterakoak ordaindu beharko dizkiozu NNPEK erakundeari.

Kontrolak egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio guztia jarri beharko duzu NNPEKen eskura eta, era berean, zure ustiategiko elementu guztietarako sarbidea eman beharko diezu auditoreei, lursailak, instalazioak eta beste ikuska ditzaten.

Sumatuz gero ekoiztutako edo jasotako produktu bat ez datorrela bat ekoizpen ekologikorako araudiarekin, kasuan kasuko produktua bereizi eta identifikatu beharko duzu, eta susmoa frogatu badaiteke, ez duzu produktu hori eko gisa (edo konbertsio gisa) merkaturatuko eta erabiliko, salbu susmoa baztertzeko ahal baduzu; Nolanahi ere, susmoa baztertzeko ez baduzu, NNPEK kontseiluari jakinarazi beharko diozu.

ONGARRITZEA, OSASUN BEGETALA ETA BELAR ARROTZEN KONTROLA

Prestakin biodinamikoaren erabilera baimendua dago.

Behar izanez gero, EB 2021/1165 Erregelamenduaren II. Eranskinean aipatutako lurzoru ongarriak eta egokitzailak erabiltzen ahalko dira. Era berean, behar izanez gero, EB 2021/1165 Erregelamenduaren I. Eranskinean aipatutako fitosanitarioak eta plagizidak erabiltzen ahalko dituzu.

EB 2021/1165 Erregelamenduaren II. Eranskinean jasotakoarekin bat, debeku da erabiltzea abeltzaintza intentsibotik datozen simaurrak (solidoak edo likidoak). Ondorio horietarako, gutxienez honako baldintza hauetako bat betetzen duen abeltzaintza ekoizpena jotzen du NNPEKek abeltzaintza intentsibotzat:

- Animaliak argi naturalik gabe edo artifizialki kontrolaturiko argi baldintzetan mantentzen dira, ekoizpen ziklo osoan.
- Animaliak etengabe daude ukuiluratuak zoladura parrillatuen gainean edo karioletan edo, Nolanahi ere, ez dute etzalekurik ekoizpen zikloan.

Simaur ekarpenek gehienez 170 kg nitrogeno izan beharko dituzte, hektarea eta urte bakoitzeko. Kalkulu hori egiteko, NNPEKek honako erreferentzia-balio hauek erabiliko ditu, 501/2013 Foru Aginduak ezarritakoarekin bat:

Hegaztien simaurra: 15 kg N, simaur tona bakoitzeko

Ardi/ahuntz-aziendaren simaurra: 6,5 kg N, simaur tona bakoitzeko

Behi-aziendaren simaurra: 5 kg N, simaur tona bakoitzeko

Zaldi-aziendaren simaurra: 4,2 kg N, simaur tona bakoitzeko

NNPEKek gomendatzen dizu erabiltzen dituzun ongarriek eta fitosanitarioek “produktu erabilgarria Nekazaritza Ekologikoan” ziurtapena izatea, EB 2018/848 araudiarekin bat. Nolanahi ere, produktu horiek erabili baino lehen, baimenduak daudela ziurtatu beharko duzu.

Ez dago herbizida baimendurik ekoizpen ekologikoan. Belar arrotzak kontrolatze aldera, honako jarduera hauetako batzuk erabil daitezke:

- Laboreen eta lugorrien arteko txandaketa
- Hainbat materialez osaturiko lur-estalkia
- Belar txarrak zehaztasunezko lanabesekin kentzea
- Nekazaritza-lanak
- Bazka ekoizpena
- Ereintza uneen aukeraketa
- Nahi ez diren haziak lursailletara ez sartzeko prebentzioa
- Beste jarduera baimendu batzuk

ALDI BEREKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA ETA EZ-EKOLOGIKOA

Zure ustiapena mistoa izaten ahalko da (ekoizpen ekologikoa eta ez-ekologikoa), bereizketa neurri egokiak hartzen badituzu eta ez baduzu aldi bereko ekoizpen baimenik gabea egiten (justifikatu beharko duzu hainbat barietateren ekoizpena **eta aise ezberdindu beharko dira**, unitate ekologikoan eta ez-ekologikoan). Aldi bereko ekoizpenak honako kasuotan izanen dira zilegi:

- Labore iraunkorrak, NNPEKek baieztatutako konbertsio-plan baten bidez; zehazki, azaleraraz azken zatia gehienez 5 urteko epean aldatu beharko da.
- Ikerkuntzara edo hezkuntza ofizialera bideratutako azalerak.
- Haziak, ugaltze materiala eta aldaxkak (mintegiak) ekoiztea.
- Larreak.

Ulertzen da erraz ezberdindu daitekeen bereizketa dela zati ekologikoaren eta ez-ekologikoaren artean, eta horrenbestez, ekoizpen begetal mistoen ustiategiak honako hau bete beharko dute:

- **Ardotarako mahastia:** kolore ezberdineko barietateen ekoizpen mistoa bakarrik da zilegi (beltzak edo zuriak).
- **Mahai-mahatserako mahastia:** kontsumitzailearen begiak erraz ezberdindu ditzakeen barietateen ekoizpen mistoa bakarrik da zilegi (tamaina, kolorea, etab.).
- **Oliorako olibadia:** ekoizpen mistoa ez da zilegi.
- **Mahai-olibarako olibadia:** kontsumitzailearen begiak erraz ezberdindu ditzakeen barietateen ekoizpen mistoa bakarrik da zilegi (tamaina, kolorea, etab.).
- **Fruitu lehorrak:** ez da zilegi espezie bereko ekoizpen mistoa.
- **Belarkiak:** ez da zilegi espezie bereko ekoizpen mistoa, salbu kolore, tamaina edo forma ezberdineko barietateen kasu argiak, kontsumitzailearen begiak aise ezberdindu ditzakeenak.
- **Fruta-arbolak:** ez da zilegi espezie bereko ekoizpen mistoa, salbu kolore, tamaina edo forma ezberdineko barietateen kasu argiak, kontsumitzailearen begiak aise ezberdindu ditzakeenak.
- **Barazkiak:** ez da zilegi espezie bereko ekoizpen mistoa, salbu kolore, tamaina edo forma ezberdineko barietateen kasu argiak, kontsumitzailearen begiak aise ezberdindu ditzakeenak.
- **Beste labore batzuk:** ez da zilegi espezie bereko ekoizpen mistoa, salbu kolore, tamaina edo forma ezberdineko barietateen kasu argiak, kontsumitzailearen begiak aise ezberdindu ditzakeenak.

NAN edo IFK ezberdina izatea ulertzen da ustiategitzat. Hori bazter utzi gabe, NPB aitortpena egiten duten operadore nekazariei dagokienez, eta zati ekologikoaren eta ez-ekologikoaren arteko bereizketa egokia betetzen dela egiaztatze aldera, NPBan aitortutako lursail guztiak NPBaren titularraren ustiategikoak direla joko da.

LANDAREAK ETA HAZIAK

Landareak ekologikoak izan beharko dira; mintegi ziurtatu batean erosten ahalko dituzu edota era ekologikoan ekoiztu zure ustiatagan.

Haziak ekologikoak izan beharko dira, baldin eta eskura badaude edota, halakorik ezean, Nekazaritza Ekologikora aldatzetik datozenak. Ekologikoan eskura ez dauden haziak ereite aldera, hazi ez-ekologikoak ereiteko baimena eskatu beharko diozu NNPEK kontseiluari, horretarako dagoen galdetegiaren bidez, ereintza egin baino 10 egun lehenago. Hazi ez-ekologikoak ezin izanen dira tratatu ekoizpen ekologikoan baimenduak ez dauden produktuekin; eta hori justifikatzeko behar den dokumentazioa gorde beharko duzu.

Hazi ernamuinduak ekoizte aldera (ernamuinak, kimuak, berroak hartzen ditu barne) -hau da, haziak hezetzearen ondorioz haziak dituzten nutrizio-erreserbetatik bakarrik bizi direnak-, haziak ekologikoak izan beharko dira eta bitarteko bizigabe bat soilik erabiltzen ahalko da hezetasuna mantentzeko. Endibien kukulua lortze aldera, haien ugaltze materialak ere ekologikoa izan beharko du.

KONBERTSIO ALDIA:

Zure ekoizpena ekologiko gisa merkaturatu ahal izan baino lehen, lursailek/laboreek konbertsio aldia pasatu beharko dute. Hauxe:

- 2 urte erein baino lehen, laborantzako lurrerako.
- 2 urte uzta bildu baino lehen, belardi eta bazka-landare iraunkorretarako.
- 3 urte uzta bildu baino lehen, bazka-landareez bestelako labore iraunkorretarako.

Konbertsio aldia zure jarduera jakinarazi eta ziurtapen eskaera egiten duzun unetik aurrera hasiko da zenbatzen; ez lehenago.

ZIZA EKOIZPENA ETA BASA BILKETA:

Zizen ekoizpenerako, substratuak erabiltzen ahalko dira, baina bakarrik honako materia hauez osatuak daudenak:

- a) etxaldeko simaurra eta animalien gorotzak:
 - i) ustiategi ekologikoetatik datozenak, edo beren bigarren konbertsio urtean daudenak, edo
 - ii) ustiategi ez-ekologikoetatik datozenak (ez-intentsiboak), soil-soilik i) atalean aipatutako produktua eskura ez dagoenean eta substratuaren osagaien pisu guztiaren % 25 gainditzen ez dutenean (estaldura materiala eta erantsitako ura sartu gabe), konpostatu baino lehen:
- b) nekazaritza jatorriko produktu ekologikoak, a) letran aurreikusitakoez bestelakoak;
- c) kimikoki tratatu ez den zohikatza;
- d) moztu ondoren, produktu kimikoekin tratatu ez den zura;
- e) EB 2021/1165 Erregelamenduaren II. Eranskinean aipatutako produktu mineralak, ura eta lurra.

Natur eremuetan, basoetan eta nekazaritza eremuetan berez hazten diren basa landareak edo landare horien zatiak biltzea ekoizpen-metodo ekologikotzat joko da, baldin eta:

- a) eremu horietan ez bada gutxienez bilketa aurreko 3 urteko epean egin ekoizpen ekologikoarekin bat ez datozen produktuen bidezko tratamendurik.
- b) bilketak ez badio eragiten habitat naturalaren egonkortasunari edo eremuko espezieen mantentzeari.

ZURE EKOIZPENA ETIKETATZEA:

Erabil ditzakezun etiketa guztiak NNPEKek berrikusten ahalko ditu. Berrikuspen hori eskatzeko, etiketa proposamena bidali beharko diozu NNPEKi, bai eta horretarako dagoen galdetegia ere.

Nekazaritza Ekologikoko logotipoak erabiltzeko, Kontseiluan inskribaturik egon beharra dago. Logotipoak bakarrik erabiliko dira indarrean den ziurtapenak estalitako nekazaritza produktuarentako eta elikagaiarentako. Logotipoak erabiltzeko aukerak ELABORATZAILEAREN Ziurtapenerako Gidan daude azalduta, www.cpaen.org, eta webguneko menuaren aukera honetan kokatua dago: ZIURTAPENA/Ziurtapenerako Gidak.

GARBIKETA:

Behar diren garbiketa neurriak hartu beharko dituzu, ekoizpen ekologikoak eta ez-ekologikoak ez nahasteko eta ez kutsatzeko, biltegitratuta dauden bitartean.

EKOIZPENEN MUGIMENDUAK ETA DERRIGORREZKO ERREGISTROAK:

Beste unitate ekologiko batzuetara bidaltzen dituzun produktu guztiak behar bezala identifikatu beharko dira, arazko baldintzen arabera. Horretarako, agiri osagarriak aurkeztu beharko dira, eta horien kopia bat gorde eta beste bat eman beharko diozu hartzailari. Albaranak edo fakturak agiri osagarritzat jotzen ahalko dira, derrigorrezkoa den informazioa jasotzen badute (NNPEK identifikazioa produktuaren ziurtapen-emaile gisa, “eko” produktuaren edo konbertsio bidean den produktuaren identifikazioa, produktuaren igorlearen eta hartzailaren identifikazioa, eta produktuaren trazabilitatea bermatzeko behar den informazio guztia).

Derrigorrezkoak diren erregistroak egin eta behar diren frogagiriak mantendu beharko dituzu araua betetzen dela bermatzeko. NNPEKek erregistro-ereduak jarriko ditu zure eskura, halakorik izan ezean erabil ditzazun. Derrigorrezko erregistroen artean honakoak daude: ongari eta fitosanitarioen erabileraren erregistroak, garbiketa neurrien erregistroak produktuak biltegian daudenean, zer-nolako ekoizpenak lortu diren eta erreklamazio orriak. Erregistroak eguneraturik eta beterik izan beharko dituzu, haietan beharrezkoa den informazioarekin.

ZIURTAPENAREN PROZESUA eta ZIURTAPEN BETEBEHARRAK

Honax ziurtapenaren prozesua:

1. Inskribatze-eskabidearen formulazioa aurkeztu behar da NNPEK kontseiluan, behar bezala betea eta sinatua, erantsi beharreko agiriekin batera. Galdetegia gure webgunean dago eskura: www.cpaen.org.
2. Ziurtapen Akordioaren sinadura. Aurrekontua prestatu eta helaraziko zaizu, eskaera egin denean indarrean diren tasen arabera. Ziurtapen eskabidea ez da betetzat eta onartutzat joko, Ziurtapen Akordioa sinatua aurkezten ez bada.
3. NNPEKek hasierako auditoretza egingen du zure eskabidea ebaluatzeko. Ebaluazioa aldekoa ez bada, zuzenketa-ekintzak hartu eta ezartzen ahalko dituzu zehazten den epean.
4. NNPEK kontseiluak zure eskabidearen aldeko edo kontrako ebazpena jakinaraziko dizu, behin Ziurtapen Batzordeak zure espedientea aztertu ondoren. Erabakia hartzeko epea gehienez 6 hilabetekoa izanen da, eskabidea betetzen duzunetik aurrera.
 - Kontrako ebazpena ematen bada, 6 hilabeteko epea izanen duzu behar diren zuzenketa egiteko, Batzordeak zure eskabidea berriz ere baloratu dezan. Epe horretan zuzenketa egiten ez baduzu, ulertuko da ez diozula prozesuari segidarik eman nahi, eta espedientea itxiko da.
 - Aldeko ebazpena ematen bada, NNPEK kontseiluak ziurtagiria bidaliko dizu. Ziurtagiriak 24 hilabeteko indarraldia izanen du, aipatzen diren irismenentarako betiere.

Behin operadore ekologiko gisa inskribaturik, zure ziurtapenaren irismenaren zabalpena eskatzen ahalko duzu, horretarako NNPEKek bere webgunean eskura jarriko dizkizun galdetegiak erabiliz (www.cpaen.org). Irismen berria ziurtatzeko prozesua hasierako ziurtapenerako berbera izanen da.

Zure ziurtapen eskariek kontrako erabakia jasotzen badute, apelazio idatzia egiten ahalko duzu Alderdien Batzordean, 15 eguneko epean jakinarazpena jasotzen duzuetik aitzina. NNPEKek, zure apelazioa jaso izana adierazteaz gain, haren emaitzaren jakinarazpen idatzia egingen dizu. Hala ere, apelazioan bestelako dokumentazio teknikorik aurkezten baduzu, Ziurtapen Batzordeak berak ebatziko du, lehen erabakia hartzean eskura izan ez zuen dokumentazio berria delako. Ziurtapen Batzordeak apelazioa ebatzen badu dokumentazio berria duelako, eta kontrako ebazpena bada, jakinaraziko zaizu oraindik ere baduzula Alderdien Batzordean apelazioa egiteko aukera.

NNPEKek, halaber, jakinarazten dizu keaxak edo erreklamazioak egiten ahalko dituzula emandako zerbitzuagatik edota kontrol eta ziurtatze jarduerarekin zerikusia duten beste arrazoi batzuegatik. NNPEKek huraxe jaso izana adieraziko dizu eta hura bere prozedurekin bat kudeatzeko konpromisoa hartuko du, ekintza egokiak eginez eta dokumentatuz; emanen zaizun erantzun idatzian jakinaraziko zaizu zer ekintza egin litezkeen kasu bakoitzean.

Behin ziurtapena emanik, NNPEKek kontrol auditoretzak egingen ditu, arauak ezarritako maiztasun minimoarekin, eta arriskuen ebaluazioa zehaztuko du, ziurtapen akordioa mantentzen den bitartean eta Kontseiluan baja hartzen ez duzun bitartean. Kontrol bisualaz eta dokumentalaz gain, NNPEKek laginak hartzen ahalko ditu zure ustiatzean. Analisisiek araua urratu ahal izan dela adierazten badute, NNPEKek kontranalisisa egiteko eskubidea duzula jakinaraziko dizu eta, baieztatzen bada, analisi eabazlea egiteko behararekin edo ez, dagokion ikerketa egingen du.

NNPEKek jakinarazten dizu laginen analisiak laborategiei azpikontratatzeko dizkiela. Hortaz, lagina hartzen bada, kontrol-auditoretzan bertan kontra egiten ahalko diozu lagin hori laborategi jakin batek edo batzuek aztertzeari, eta auditoreari zure jarrera justifikatu beharko diozu.

Kontrolen emaitzen arabera, NNPEKek urtero berrituko du zure ziurtapena, edo ziurtapena kendu edo bertan behera utziko du, dela orokorrean, dela ekoizpen sorta edo elementu zehatzetan.

Zuzenketa/konponketa ekintzak egin beharko dituzu zure jarduera ziurtatuan atzematen diren urraketak moldatzeko, kasu bakoitzerako ezartzen diren epeen barnean. Urraketa horiek moldatzen ez badira, NNPEKek jakinaraziko dizu zer ekintza egin eta hilabeteko epea izanen duzu moldatu ahal izateko. Urraketen arabera, hona hemen zer neurri har daitezkeen:

- Operadoreak zuzenketa-plan bat aurkeztea.
- Ziurtapena kentzea ekoizpen sorta bati edota unitateko elementuei (kalifikazioa kentzea lursailei edo animaliei), edo erreferentzia ziurtatuei.
- Aurreko neurri batzuk edo antzeko batzuk batera.
- Ziurtagiria bertan behera uztea (ekoizpen metodo ekologikoari dagozkion terminoen erabilera debekatzea epealdi jakin baterako).
- Ziurtagiria kentzea (operadorearen baja).

Neurriak ezarriko dira, urratu den betebeharraren garrantziaren arabera, eta jarduera irregularren eitearekin eta inguruabar zehatzekin. Haien berri ematean, NNPEKek jakinaraziko dizu apelazioa egiteko eskubidea duzula.

Ziurtagiria bertan behera uzten bada, neurri hori jakinarazten denetik 6 hilabete baino gehiago igarotzen badira hura eragin duten arrazoiei konponbiderik eman gabe, operadoreari baja ematen ahalko zaio. Operadoreari baja ematea erabakitzen bada, ezin izanen da berriro operadore gisa alta eman 12 hilabeteko epean.

NNPEK kontseiluarekin sinatzen duzun ziurtapen-akordioak bi alderdien eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak jasoko ditu. Hala eskatuz gero, NNPEKek zure eskubideak, betebeharrak eta konpromisoak jarriko ditu zure eskura, bai eta NNPEKen konpromisoak eta erantzukizunak ere.

Indarrean diren tasen, kontsulten edo argibideen berri izateko, jarri gurekin harremanetan 948-178332 telefonoan.

Kontrol eta Ziurtatze Saila
CPAEN-NNPEK